

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

“N-240 errepidearen Gamarra-Miñano goien zatia eta Miñano Goiengo saihebidetza egokitzeko, erdibitzailea egiteko eta sarbideak berrantolatzeko trazadura proiektua”-k eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda zabaltzea eta aipatutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko eta/edo behin betiko okupazioko eta, hala badagokio, balio justua ezartzeko aktak egiteko

Foru Gobernu Kontseiluak, 2021eko uztailaren 27an egindako bilkuran, 475/2021 Erabakia onartu du. Hona hemen horren testua:

“Handitzea “N-240 errepidean, Gamarra-Miñano tartean eta Miñano saihebidetan, egokitzeko, erdibitzailea eraikitze eta sarbideak berrantolatzeko trazadura proiektua”ren eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrenda. Okupatzeko beharra adieraztea. Presako prozedura. Kreditu atxikipena.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 28ko 552/2000 Erabakiaren bidez, behin betiko onetsi zen “N-240 errepidean, Gamarra-Miñano tartean eta Miñano saihebidetan, egokitzeko, erdibitzailea eraikitze eta sarbideak berrantolatzeko trazadura proiektua”, bai eta haren eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda ere.

Desjabetze espedientearen izapideak Nahitazko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan araututako presako prozedura bidez egin ziren.

Errepide Zerbitzuak txostena eman zuen 2021eko apirilaren 19an, eta honako hau adierazi zuen:

“2021eko urtarrilaren 21ean Joaquín Ruiz de Escudero Fernández de Gamarraren idazki bat jaso zen sarrera erregistroan. Idazki horretan adierazitakoaren arabera, Gasteizko 46 poligonoko 85 lurzati lurrak lantzen du, eta lur horren titularrak bere senideak dira.

Idazkian, azaldu du lurzati hori N-240 errepidea handitzeko proiektuaren eraginpean egon zela, eta zuhaitz ilara bat landatu zela lurzatiaren barrualdean, desjabetutako eremutik kanpo.

Horren ondorioz, adierazi du lurzatiaren 770,01 m²-ko azalera inbaditu dela, eta txikitu egin dela fincan lantzen denaren ekoizpena.

Horregatik guztiatik, eskatzen du zuzendu eta erregularizatu dadila egoera hori, eta ordaindu dadila irregulartasun hori sortu zenetik izan den lortu gabeko irabaziari dagokion zerbatekoa.

Gaia aztertu ondoren, honako hau adierazi behar dugu:

“N-240 errepidean, Gamarra-Miñano tartean eta Miñano saihebidetan, egokitzeko, erdibitzailea eraikitze eta sarbideak berrantolatzeko eraikuntza proiektu aldatua”ren obrak zirela eta, aipatutako lurzatiaren proiektuaren eraginpean geratu zen eta haren zati bat desjabetu zen, eta 2000/39 desjabetze espedientearen 43/000 eta 43/100 finka zenbakiekin identifikatu zen.

Eskatzaileak aipatutako zuhaitzen landaketa proiektu horretan jasotako ingurumena lehen-goratzeko neurri zuzentzaileen barruan egin zen. Jasotze topografiko bat egin da, eta egiaztatu da, eskatzaileak adierazi bezala, zuhaitzak lurzatiaren barruan daudela.

Era berean, Errepide Zerbitzuak duela gutxi autobiarene itxitura perimetrala ezarri du bide segurtasuneko arrazoiak direla eta, eta hesiak jarri dira zuhaitzetatik 2,00 metroko arauzko tartea utzita, lurzatiaren barrurantz.

Ondorioz, eskatzaileak adierazi baino azalera handiagoan eragin da lurzatian, guztira 897 m²-ko azalera.

Gaiaz hitz egin da eskatzailearekin, eta, zuhaitzak babesteko eta hesiak dauden tokian mantentzeko, irtenbide egokientzat jo da okupazio horren ordaina izan dadila Foru Aldundi honena den alboko lurzatiaren —Gasteizko 46 poligonoko 108 lurzattia— zati bat edo lurzattia osorik adjudikatzea; hori guztia, aurrez dagokion balioztatzea eginda. Horretarako, gaur egungo desjabetze mugaren eta berriki jarri diren hesien arteko lursailak desjabetu beharko lirateke, zeinak bideetako jabari publikoari atxikita geratuko bailirateke. Eta, horretarako, 43/200 finka sortu da txostenari erantsitako taulan jasotako datuekin”

Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 15. artikulua eta hura garatzen duen arautegiaren 15. artikulua okupazioa handitzea eta hedatzea aurreikusten dute, eta okupatu beharreko ondatsun artean sartu daitezke ezinbestekoak direnak aurreikus daitezkeen kasuan kasuko obra handitzeetarako edo helburuetarako, desjabetzea dakarren helburu, obra edo zerbitzuari loturik geratzen direla iritiz.

Era berean, adierazi behar da presaz okupatzeko aukera proiektuari ez ezik, desjabetzea handitzeari ere aplikatzen zaiola, eta, beraz, bidezkoa da eragindako ondatsun eta eskubideen desjabetzea handitzeko izapideak presako prozeduraren bidez egitea.

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak aurrekontu kreditua dagoela adierazteko idatzitako txostenak eta Desjabetze Atalak egindakoak aztertuta, eta Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko diputatua naizen aldetik dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Handitzea “N-240 errepidean, Gamarra-Miñao tartean eta Miñao saihebi-dean, egokitzeko, erdibitzailea eraikitze eta sarbideak berrantolatzeke trazadura proiektua”ren eraginpeko ondatsun eta eskubideen zerrenda, eranskinean xehatutakoaren arabera.

Bigarrena. Adieraztea handitze horren eraginpeko ondatsunak okupatu eta eskuratu beharra dagoela, desjabetzeko eta bide-zorra ezartzeko.

Hirugarrena. Izapidetzea, premiazko prozedura bidez, ondatsun eta eskubide zerrendaren handitzea. Ondatsun eta eskubide horiek eranskinean adierazten dira.

Laugarrena. 4.452,48 euro esleitzea, Arabako Foru Aldundiaren 2021eko aurrekontuko “Desjabetzeak” 50106.5300.6000002 partidaren kontura (zorpekin erreferentzia: 105-2224/000.21.1.21), eragindako ondatsun eta eskubideen balio justua dela eta ordaindu beharreko kopuruei aurre egiteko.

Bosgarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak ordain dezala eragindako finkei dagokien balio justuaren kopurua. Zenbateko hori Desjabetze Atalaren buruak balio justua ordaintzeko proposamen txostena aurkeztu eta gero ordainduko da. Ordainketa hori aipatutako lerro eta zorpekin erreferentziaren kontura egingo da, legeak ezarritako epeetan.

Seigarrena. Erabaki honek administrazio bideari amaiera ematen dio, eta beraren aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, nahi izanez gero, lehenago, berraztertzeke errekurtsua aurkez dakioketo organo honi, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera”

Horren berri ematen da interesdunak jakinaren gainean jartzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, eta jakinarazten da egintza honek administrazio bideari amaiera ematen diola, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, nahi izanez gero, lehenago berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio egintza hau agindu duen erakunde berari. Horretarako, hilabete izango da aurkatutako egintza argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala eginez gero, ezingo da aurkeztu administrazioarekiko auzi errekurtsorik, harik eta aurkeztutako berraztertze errekurtsoaz ebazpen espresa eman edo ustezko ezespina gertatu arte (Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. eta 124. artikulua).

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko Lege eta Administrazio Zerbitzuko Desjabetze Ataleko lokaletan ager daitezen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatiko kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskainiz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 19a

Bide Azpiegituren zuzendaria
CARLOS IBARLUCEA MARTÍNEZ

**Bide Azpiegituren eta
Mugikortasunaren Saila**
Departamento de Infraestructuras
Viarias y Movilidad



N-240 ERREPIDEAREN GÁMARRA-MIÑANO GOIEN ZATIA ETA MIÑANO GOIENGO SAHESRIDEA EGOKITZEKO, ERDIBITZALEA EGITEKO ETA SARBIDEAK BERRANTOLATZEKO TRAZADURA PROIEKTUA.
TRAZADO DE ACONDICIONAMIENTO, CONSTRUCCION DE MEDIANA Y REORDENACION DE ACCESOS. TRAMO GÁMARRA-MIÑANO MAYOR Y VARIANTE DE MIÑANO MAYOR EN LA CRTA. N-240.

FINKAREN ZK.	TITULARRAREN IZENA	KATASTROKO DATUAK		UDALERRIA	ERAGINDAKO AZALERA m ²	EGUNA	ORDUA
		POLIGONOA	LURZATIA				
Nº FINCA	NOMBRE DEL TITULAR	DATOS CATASTRALES		TERMINO MUNICIPAL	SUPERFICIE AFECTADA m ²	DÍA	HORA
		POLIGONO	PARGELA		DEFINITIVA		
43200	PEDRO MARIA MARQUINEZ FERNANDEZ DE GÁMARRA MARTIN MARQUINEZ FERNANDEZ DE GÁMARRA HDROS. DE JOSEFA FERNANDEZ DE GÁMARRA RUIZ DE ARBULO MARIA DEL ROSARIO MARQUINEZ FERNANDEZ DE GÁMARRA MARIA TERESA MARQUINEZ FERNANDEZ DE GÁMARRA	46	85	VITORIA-GASTEIZ	897	15/12/21	10:30